naturaldia zinema

# natZinema

## I. GIPUZKOAKO NATURA ETA INGURUMENEKO ZINEMA ERAKUSTALDIA

## I MUESTRA DE CINE DE NATURALEZA Y MEDIO AMBIENTE DE GIPUZKOA

2021 APIRILA ABRIL 13-23

GIPUZKOA **INGURUMENA**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES

Trienekens

GIPUZKOA **KULTURA**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



## José Ignacio Asensio Bazterra

**INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA**
DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

GIPUZKOA **INGURUMENA**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Gnat Zinema 2021

Gnaturaldia Zinema

Zinema eta Natura oso ondo funtzionatzen duen binomio bat da. Medio zinematografikoak bizitza errealean ia ikusezinak diren natura-alderdi batzuei behatzeko aukera ematen dio ikusleari eta animaliak, landareak eta ekosistemak barrukotasunez ezagutzekoa. Halaber, bizi diren ingurunearen degradazioaren ondorioz sufritzen duten giza komunitateen eta komunitate biologikoen errealitatea erakuts diezaguke. Horrek guztiak formatu zinematografikoa Gnaturaldiaren hedabide gogokoenetako bat bihurtzen du elementu hori jada bere ezaugarrietako bat izateraino.

Bide honetan sakondu nahi dugu, Gipuzkoako herritarrei aukera emanez zinema dokumentaleko ekoizpenik onenetako batzuk ikusteko, **I. Natura eta Ingurumeneko Zinema Erakustaldian**. Bi aste trinkoan zehar, 10 ekoizpen proiektatuko dira, 16 emanaldiren bidez, zortzi egoitzatan banatuta, eta aurkezpen eta erakusketa osagarriz lagunduta.

Egitarau hori guztia Gipuzkoa Naturaldiaren egoitzen lankidetzarekin eskaintzen da –Azpeitia, Eibar, Errenteria eta Tolosako udalak; Euskal Kostaldeko Geoparkea; Oñatiko Natura Eskola; eta Donostiako Aquariuma–. Babeslea, berriz, Trienekens da. Eskerrak eman nahi dizkiet guztiei I. Erakustaldi hau posible izan dadin egindako lanagatik.

Espero dut ekimen hau zuen gustukoa izatea, eta lagungarri gertatzea estimu, begirune eta maitasun jarrerak sor daitezen gure ingurune naturalarenganako.

Cine y Naturaleza es un binomio que funciona muy bien. El medio cinematográfico permite al espectador observar aspectos de la naturaleza casi imposibles de ver en su vida real y conocer íntimamente animales, plantas y ecosistemas. También puede enseñarnos la realidad de comunidades humanas y biológicas que sufren a causa de la degradación del medio en el que habitan. Todo ello convierte el formato cinematográfico en uno de los medios preferidos de Gipuzkoa Naturaldia, hasta el punto de que este elemento constituye ya una de sus señas de identidad.

Queremos ahondar en este camino, brindando a la ciudadanía de Gipuzkoa la oportunidad de ver algunas de las mejores producciones de cine documental en la **I Muestra de Cine de Naturaleza y Medio Ambiente**. A lo largo de dos intensas semanas, en 16 sesiones repartidas en nuestras ocho sedes, se proyectarán 10 producciones, acompañadas de presentaciones y exposiciones complementarias.

Todo este programa es ofrecido en colaboración con las sedes de Gipuzkoa Naturaldia —los ayuntamientos de Azpeitia, Eibar, Errenteria y Tolosa, el Geoparque de la Costa Vasca, Oñatiko Natur Eskola y Aquarium Donostia/San Sebastián — y nuestro patrocinador, Trienekens. Quiero agradecer a todos ellos su contribución para que esta I Muestra haya sido posible.

Espero que esta iniciativa sea de vuestro agrado y contribuya a generar actitudes de aprecio, respeto y amor hacia nuestro entorno natural.

Gnat Zinema 2021

# I. GIPUZKOAKO NATURA ETA INGURUMENEKO ZINEMA ERAKUSTALDIA

# I MUESTRA DE CINE DE NATURALEZA Y MEDIO AMBIENTE DE GIPUZKOA

**Naturarekin lotutako ikus-entzunezko edukiak, eta, bereziki, pertsonek naturarekin duten harremana islatzen dutenak pertsonok naturarekin ditugun harremanetan sakontzeko.**

Contenidos audiovisuales relacionados con la naturaleza y en especial, aquellos en los que se refleja la relación de las personas con ella para ahondar en profundidad en las relaciones que las personas mantenemos con la naturaleza.

**8**
**EGUN**
DÍAS

**APIRILA**
ABRIL
**13-23**

**8**
**UDALERRI**
MUNICIPIOS

**AZPEITIA**
**DONOSTIA**
**DEBA**
**EIBAR**
**ERRENTERIA**
**OÑATI**
**TOLOSA**
**ZUMAIA**

**5**
**PRISMA**
PRISMAS

**10**
**FILM**
PELÍCULAS

***Dehesa***
***Mountain***
***Artifishal***
***Project Wild Thing***
***Los Plástico***
***Out Of Plastic***
***Natura Bizia***
***The Sacred Place Where Life Begins***
***Burbunak eta Etsayak***
***David Attenborough: Una Vida en Nuestro Planeta***

**GURE ARRASTOA NATURAN**
NUESTRA HUELLA EN LA NATURALEZA










**HAURRAK ETA NATURA**
LOS NIÑ@S Y LA NATURALEZA




**GURE NATURA**
NUESTRA NATURALEZA







**NATURA GIZARTEEN KULTURAN**
LA NATURALEZA EN LA CULTURA DE LAS SOCIEDADES









**BIZITZA OSOA NATURAN**
TODA UNA VIDA EN LA NATURALEZA



# APIRILA ABRIL 13-23/ 19:00

SAIO GUZTIAK
TODAS LAS SESIONES

## 13 ASTR/MA




**IREKIERA**
APERTURA

**DONOSTIA**
VICTORIA EUGENIA
***Dehesa***

## 14 ASTZ/MI




**AZPEITIA**
SOREASU
***Mountain***




**ERRENTERIA**
NIESSEN
***Artifishal***




**OÑATI**
ZINEMA
***Project Wild Thing***

## 15 OSTG/JU




**DEBA**
DEBAKO K.E.
***Dehesa***




**EIBAR**
COLISEO
***Dehesa***




**DONOSTIA**
CINE PRINCIPE
***Natura Bizia***

## 16 OSTR/VI




**TOLOSA**
TOPIC
***Dehesa***




**DONOSTIA**
AQUARIUM
***The Sacred Place Where Life Begins***
**+**
***Burbunak eta Etsayak***




## 20 ASTR/MA




**OÑATI**
ZINEMA
***Natura Bizia***




**ERRENTERIA**
NIESSEN
***Dehesa***

## PRISMAK
PRISMAS

**GURE NATURA**
NUESTRA NATURALEZA

**NATURA GIZARTEEN KULTURAN**
LA NATURALEZA EN LA CULTURA DE LAS SOCIEDADES

**GURE ARRASTOA NATURAN**
NUESTRA HUELLA EN LA NATURALEZA

**HAURRAK ETA NATURA**
LOS NIÑ@S Y LA NATURALEZA

**BIZITZA OSOA NATURAN**
TODA UNA VIDA EN LA NATURALEZA

## 21
**ASTZ/MI**




**AZPEITIA**
SOREASU
***Dehesa***




**DONOSTIA**
AQUARIUM
***Artifishal***

## 22
**OSTG/JU**







**ZUMAIA**
AITA MARI ANTZOKIA
***Los Plástico***
+
***Out Of Plastic***



**EIBAR**
COLISEO
***David Attenborough: Una Vida en nuestro Planeta***

## 23
**OSTR/VI**




**TOLOSA**
LEIDOR
***Natura Bizia***

**AMAIERA**
CLAUSURA

# SARRERAK
ENTRADAS

**I. Gipuzkoako Natura eta Ingurumeneko Zinema Erakustaldiko saio guztietarako sarrerak DOAKOAK izango dira.**

Las entradas para todas las sesiones de la I Muestra de Cine de Naturaleza y Medio Ambiente de Gipuzkoa, Gnat Zinema 2021 serán GRATUITAS.

## Lortu zure sarrera
## Consigue tu entrada

- **Sede bakoitzeko ohiko moduak erabiliz.**
  Utilizando los cauces habituales de cada sede.
- **Esteka hau erabiliz, saio bakoitzeko sarrerak nola lortu adierazten da bertan:**
  **https://gip.eus/fa5**
  A través de este enlace, con información específica de cómo obtener las entradas de cada sesión:
  **https://gip.eus/fa6**

EU

ES




## GURE NATURA / NUESTRA NATURALEZA

**Oraingo honetan, CANTÁBRICO filmaren zuzendariak inork gutxik ezagutzen duen Iberiar penintsulako toki bat erakutsi nahi digu bere azken filmean, DEHESA, hain zuzen; munduan parekorik ez duen basoa, non askotariko sentsazioak deskubrituko ditugun. Arteek, artelatzek eta erkametzek gudu zelai bat eratzen dute, eta, bertan, belarjale handiek erronka jotzen diote elkarri; katamotz iberiar dotore eta isilak zein arrano ikaragarriak ehizan aritzen dira; eta loreak kamuflaje harrigarriekin jantzitako harraparien ezkutaleku bihurtzen zaizkigu. Baina, horrez gain, urtero, urrutitik etorritako milaka bidaiari hartzen dituen leku atsegina ere izan daiteke, paraje horietan izaten baitute neguko bizilekua. Izan ere, eguraldi epelagoa bilatzen dute, eta, horrekin batera, jakirik preziatuena: DEHESAKO urrea, hau da, ezkurrak; arbolek, biziraupena bermatzeko, animaliekin erabiltzen duten truke txanpona.**

**Victoria Eugeniako inaugurazio saioan Wanda films-i omenaldia egingo zaio naturari buruzko dokumentalak egiten egindako ibilbideagatik, eta bertan izango dira Jose Maria Morales produktorea eta Joaquín Gutiérrez Acha, zuzendaria.**

El nuevo largometraje del director de CANTÁBRICO nos traslada a la gran desconocida de la Península Ibérica, la DEHESA. Un bosque único en el mundo donde descubriremos sensaciones muy diversas. Encinas, alcornoques y quejigos dan lugar a un campo de batalla donde se retan los grandes herbívoros, donde cazan los elegantes y sigilosos linces ibéricos y las formidables águilas, donde las flores esconden depredadores con camuflajes sorprendentes. Pero también puede ser un lugar amable que recibe cada año a miles de viajeros de larga distancia, que tienen en estos parajes sus cuarteles de invierno. Buscan un clima más cálido y el alimento más preciado, el oro de la DEHESA, las bellotas. La moneda de cambio que estos árboles utilizan con los animales para preservar su existencia.

En la sesión inaugural del Victoria Eugenia se realizará un homenaje a Wanda films por su trayectoria en realización de documentales sobre naturaleza y estará presentes José María Morales productor y Joaquín Gutiérrez Acha, director.

# *Dehesa* *(94 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania, azpititulurik gabe.
Castellano, sin subtítulos.

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Wanda films

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Joaquín Gutierrez Acha

| Apirila<br>Abril | Ordua<br>Hora | Udalerria<br>Municipio | Lekua<br>Lugar | Aurkezpena (inaugurazio saioan bakarrik)<br>Presentación (solo en la sesión inaugural) |
|---|---|---|---|---|
| 13 | 19:00 | DONOSTIA | VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA | **José María Morales**<br>*Ekoizlea / Productor, Wanda Films*<br>**Joaquín Gutiérrez Acha**<br>*Zuzendaria / Director*<br>**Carlos de Hita**<br>*Soinuaren eta narrazioaren arduraduna / Responsable de sonido y narración* |
| 15 | | EIBAR | COLISEO | |
| 15 | | DEBA | DEBAKO K.E. | |
| 16 | | TOLOSA | TOPIC | |
| 20 | | ERRENTERIA | NIESSEN | |
| 21 | | AZPEITIA | SOREASU | |




## GURE NATURA / NUESTRA NATURALEZA

**Iberiar Penintsulako iparraldean bi eskualdek aukera paregabeak eskainiko dizkigute. Euskadi eta Nafarroa, Europa mailan biodibertsitate ehuneko handia duten bi lurralde dira. Natura Bizian, hobekien kontserbatutako txokoak, biodibertsitate ikusgarriena eta egoera basatienean dagoen animalia fauna ezagutaraziko ditugu. Labar bertikalak, itsaso amaigabea, magiaz betetako basoak eta kareharrizko mendi erraldoiak; horiekin guztiekin bizipen ahaztezinak izango ditugu.**

En el norte de la Península Ibérica encontramos dos regiones que nos depararán grandes momentos. Son Euskadi y Navarra, dos territorios que albergan un alto porcentaje de la biodiversidad existente en Europa. En Natura Bizia, desvelaremos los rincones mejor conservados, la biodiversidad más espectacular y la fauna animal en su estado más salvaje. Acantilados verticales, un mar infinito, bosques llenos de magia y enormes montañas calizas nos harán disfrutar de inolvidables vivencias.

# *Natura Bizia* *(74 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Aurrestreinaldia erdaraz; gainerako saioak euskaraz gaztelaniazko azpitituluekin.
Preestreno en castellano; resto de sesiones en euskara con subtítulos en castellano.

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Avis Productions Nature Films, S.L

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Leixeia Larrañaga, Alexander Gutiérrez

| Apirila Abril | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 15 | 19:00 | DONOSTIA | PRÍNCIPE ANTZOKIA | **Lexeia Larrañaga** *Zuzendaria / Directora* **Alexander Gutiérrez** *Zuzendaria / Director* **Asier Bilbao** *Ekoizlea / Productor* **María Jesús Díez** *Barton Films* |
| 20 | | OÑATI | ZINEMA | |
| 23 | | TOLOSA | LEIDOR | |




## NATURA GIZARTEEN KULTURAN / LA NATURALEZA EN LA CULTURA DE LAS SOCIEDADES

**Mendiekiko dugun obsesioaren esplorazio ikusgarria.**

**Duela hiru mende, mendi bat eskalatzea ia erokeria bat zen, eta ia ez zegoen pentsatzerik paisaia basatiak erakargarriak izan zitezkeenik. Mendi gailurrak leku arriskutsuak ziren, ez ederrak. Mendiek sortzen diguten lilura eta gure bizitzak zein ametsak moldatzeko duten gaitasuna erakusten ditu 'MOUNTAIN' filmak.**

Una exploración deslumbrante de nuestra obsesión por las montañas.

Hace solo tres siglos, escalar una montaña se habría considerado una locura, apenas existía la idea de que los paisajes salvajes pudieran albergar algún tipo de atracción. Los picos eran lugares de peligro, no de belleza ¿Por qué, entonces, somos atraídos por las montañas en forma tan masiva? MOUNTAIN nos muestra la fuerza fascinante de las alturas y su poder para moldear nuestras vidas y nuestros sueños.

## ***Mountain*** *(74 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania, azpititulurik gabe.
Castellano, sin subtítulos.

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Australian Chamber Orchestra / Cinema Stranger than Fiction Films / Camp4 / Collective Sherpas

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Jennifer Peedom

| Apirila<br>Abril | Ordua<br>Hora | Udalerria<br>Municipio | Lekua<br>Lugar | Aurkezpena<br>Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 14 | 19:00 | AZPEITIA | SOREASU | **Edurne Pasaban**<br>*Mendigoizalea, 14 zortzi milakoak igo zituen lehen emakumea, industria-ingeniaria eta enpresaria. / Alpinista, la primera mujer en el mundo en conseguir coronar los 14 ochomiles, ingeniera industrial y empresaria.* |




## NATURA GIZARTEEN KULTURAN / LA NATURALEZA EN LA CULTURA DE LAS SOCIEDADES

**Haritik tira egin arren, inoiz amaitzen ez den artilezko harila bezalakoa da ondarea.**

**Gizakia naturari lotuta bizi denetik ezagutza izugarri handia sortu da, haril amaigabe bat. Gizakiak ukenduak egin ditu sendabelarrekin, eta basoko piztiei jarraitu die herriko azken txokoraino… Egungo Euskal Herrian, herritarrak gero eta hiritarragoak izan arren, oraindik badaude de ondare hori mantentzen duten pertsonak: animalien izenak, landareenak, bizimoduak, sinesmenak, mitoak…**

**Dokumental honek Hernaniko bizimodua erakutsiko digu, herri horretan haril amaigabe hori ez baita gelditu oraindik. 25 protagonistek azalduko digute burbunak eta etsayak zer diren.**

El patrimonio es como un ovillo de lana que nunca termina, por mucho que estires de la cuerda.

Desde que el ser humano vive unido a la naturaleza se ha ido generando una cantidad enorme de conocimiento, un ovillo interminable. El ser humano ha creado ungüentos con las hierbas medicinales y ha seguido a las bestias del bosque hasta el último rincón del pueblo… en una Euskal Herria donde los habitantes de los pueblos son más ciudadanos, hay todavía personas que mantienen ese patrimonio: los nombres de los animales, las plantas, la forma de vida, las creencias, los mitos…

Este documental nos acerca a la realidad de Hernani, ya que la cuerda de ese ovillo interminable no se ha parado todavía en este pueblo. 25 protagonistas nos aclararán qué son burbunak y etsayak.

# *Burbunak eta Etsayak*

*(59 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Euskara, euskara batuko azpitituluekin.
Euskara, con subtítulos en euskara batua.

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Dobera Eusk. Elk., Aranzadi Zientzia Elk.

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Iñaki Sanz-Azkue, Eñaut Agirre

| Apirila Abril | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 16 | 19:00 | DONOSTIA | AQUARIUM | **Iñaki Sanz-Azkue** *Biologoa, dokumentalaren egilea. / Biólogo, autor del documental.* **Eñaut Agirre** *Filologoa, dokumentalaren egilea. / Filólogo, autor del documental.* |




## *The Sacred Place Where Life Begins* (24 min)

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Ingelesa, euskarazko azpitituluekin.
Inglés, con subtítulos en euskara.

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
N/A

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Kristin Gates, Jeremy La Zelle

### **NATURA GIZARTEEN KULTURAN** / LA NATURALEZA EN LA CULTURA DE LAS SOCIEDADES

**Borroka bat lehen pertsonan bizi behar da. Bi abenturazalek lau hilabeteko espedizio arriskutsu bati ekiten diote Alaskako eta Kanadako Babesleku Artikoan, munduko lurreko ugaztunen migraziorik luzeena dokumentatzeko.**

**Laster ezagutuko dute Gwich'in Nation delakoak babestutako ekosistema ikaragarria, multinazional handien interesengatik amildegi ertzean dagoena.**

Una lucha debe vivirse en primera persona. Dos aventureros se embarcan en una peligrosa expedición de cuatro meses a través del Refugio Ártico de Alaska y Canadá, para documentar la migración de mamíferos terrestres más larga del mundo.

Pronto descubrirán un increíble ecosistema protegido por la Gwich'in Nation, que se encuentra al borde del precipicio debido a los intereses de las grandes multinacionales.

| Apirila Abril | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar |
|---|---|---|---|
| 16 | 19:00 | DONOSTIA | AQUARIUM |




## GURE ARRASTOA NATURAN / NUESTRA HUELLA EN LA NATURALEZA

**Pertsonei, ibaiei eta arrain basatien etorkizunaren eta haien euskarri den ingurumenaren aldeko borrokari buruzko filma da Artifishal. Basa izokinak desagertzeko zorian egotea, arrain hazkuntzak eragindako mehatxuak eta gizakiok naturan etengabe federik ez izatea aztertzen ditu.**

**Donostiako saioan Irekibai proiektuaren berri emango da. Europako Erkidegoko LIFE finatza-tresnaren laguntza jaso duen proiektu honen baitan, Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntzak burutu dira.**

Artifishal es una película sobre personas, ríos y la lucha por el futuro de los peces salvajes y el medio ambiente que los sustenta. Explora la caída de los salmones silvestres hacia la extinción, las amenazas plantadas por las piscicultura y nuestra pérdida continua de fé en la naturaleza.

En la sesión de San Sebastián se presentará el proyecto Irekibai. Gracias a este proyecto que ha contado con la contribución del instrumento financiero LIFE de la Unión Europea, se han podido llevar a cabo mejoras de la conectividad y los hábitats en los ríos compartidos por Navarra y Gipuzkoa.

## *Artifishal* *(75 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Ingelesa, euskarazko azpitituluekin.
Inglés, con subtítulos en euskara.

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Patagonia

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Josh Murphy

| Apirila<br>Abril | Ordua<br>Hora | Udalerria<br>Municipio | Lekua<br>Lugar | Aurkezpena<br>Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 14 | 19:00 | ERRENTERIA | NIESSEN | **Enrique Ramos**<br>*Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako zuzendaria / Director de Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa* |
| 21 | | DONOSTIA | AQUARIUM | |

**Filmak/Películas**




## GURE ARRASTOA NATURAN / NUESTRA HUELLA EN LA NATURALEZA

**Out of Plastic dokumental bat da, Mediterraneo itsasoko plastikoaren sakonera ilunak aztertzen dituena.**

**Filma Balear Uharteetan girotuta dago, eta une bat eskaintzen du plastikoak gure bizitzetan eta gure ingurunean duen presentzia sakonari buruz hausnartzeko. Filmak, halaber, ozeanoaren, gizakiaren eta naturaren arteko elkargunearen paisaia ikusgarriak eta sakontasun mistikoak eskaintzen ditu, eta erakutsi nahi du erabilera bakarreko plastiko gehiegi kontsumitzeak balantza areagotu duela naturaren kaltetan eta, azken batean, gure buruaren kaltetan.**

Out of Plastic es un documental que explora las oscuras profundidades de plástico en el Mar Mediterráneo.

La película está ambientada en las Islas Baleares y ofrece un momento para reflexionar sobre la profunda presencia del plástico en nuestras vidas y en nuestro entorno. La película también ofrece paisajes deslumbrantes y profundidades místicas del océano, el punto de encuentro entre el hombre y la naturaleza, y tiene la intención de demostrar cómo nuestro consumo excesivo de plástico de un solo uso ha inclinado la balanza, en detrimento de la naturaleza y, en última instancia, de nosotros mismos.

## *Out Of Plastic* *(60 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania, euskarazko azpitituluekin.
Castellano, con subtítulos en euskera.

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Cleanwave / Altamar TV

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Line Hadsbjerg

| Apirila Abril | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 22 | 19:00 | ZUMAIA | AITA MARI ANTZOKIA | **Line Hadsbjerg** *Zuzendaria, CleanWave erakundearen sortzaileetako bat. / Directora, cofundadora de CleanWave.* |




## GURE ARRASTOA NATURAN / NUESTRA HUELLA EN LA NATURALEZA

**Munduko olaturik handienak bilatzen zituzten Alejandro Selkirk uharte urrun eta inkomunikatuan. Olatu erraldoien artean arakatuz, Kohl Christensen, Ramón Navarro, Patricio Mekis eta Léa Brassy surfistek espero zutena baino altxor handiagoak aurkitu zituzten. Nola deskubrituko dute kanpotar horiek pertsona komunitate txiki bat aldaketa handiak egiteko gai dela?**

Buscaban las olas más grandes del mundo en la remota e incomunicada isla de Alejandro Selkirk. Explorando entre gigantes, los surfistas Kohl Christensen, Ramón Navarro, Patricio Mekis y Léa Brassy encontrarán tesoros más grandes de lo que esperaban. ¿Cómo descubrirán estos forasteros que una pequeña comunidad de personas es capaz de hacer grandes cambios?

# *Los Plástico* *(13 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Ingelesa, euskarazko azpitituluekin.
Inglés, con subtítulos en euskara.

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Patagonia

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Angel Marín, Patricio Mekis

| Apirila<br>Abril | Ordua<br>Hora | Udalerria<br>Municipio | Lekua<br>Lugar | Aurkezpena<br>Presentación | Erakusketa<br>Exposición |
|---|---|---|---|---|---|
| 22 | 19:00 | ZUMAIA | AITA MARI ANTZOKIA | Surfrider España | *La costa y tú* |




## HAURRAK ETA NATURA / LOS NIÑ@S Y LA NATURALEZA

**David Bond zinemagilea kezkatuta dago. Bere seme-alabak esnai daudenean marketin kakofonia bat eta pantailarekiko dependentzia nagusi dira. Edozein hiritako haurrek bezala, denbora gehiegi ematen dute barruan, ez bere garaian bezala. Naturara itzultzeko ordua dela erabaki du, literalki. Bere alabaren bizitzaren herena betetzen duten markekin lehiatzeko ahaleginean, Bondek bere burua Naturako Marketin Zuzendari izendatzen du. Edozein saltzailek bezala, kanpaina bat eta logotipo bat garatzea erabakitzen du. Nahastuta utziko dituen hainbat profesionalen laguntzarekin, laster Natura salduko die familia britainiarrei. Bere bidaia dibertigarrian ordea, familia-bizitza modernoari buruzko egia mingarri batzuk aurkituko ditu. Bere produktua doakoa da, ugaria eta irabaziak egiaztatuta ditu, baina... iraungitze-data gainditu ote du?**

David Bond está preocupado. Las horas de vigilia de sus hijos están dominadas por una cacofonía de marketing y una dependencia de la pantalla que amenaza con convertirlos en zombis de ojos vidriosos. Como los niños de cualquier ciudad, pasan demasiado tiempo en el interior, no como en su época. Decide que es hora de volver a la naturaleza, literalmente. En un intento por competir con las marcas, que ocupan un tercio de la vida de su hija, Bond se nombra a sí mismo Director de Marketing de Naturaleza. Como cualquier vendedor que se precie, se propone desarrollar una campaña y un logotipo. Con la ayuda de varios profesionales desconcertados, pronto venderá Naturaleza a familias británicas. Su divertido viaje descubre algunas verdades dolorosas sobre la vida familiar moderna. Su producto es gratuito, abundante y tiene beneficios comprobados, pero ¿se ha quedado caduco?

# *Project Wild Thing* *(75 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Ingelesa, euskarazko azpitituluekin.
Inglés, con subtítulos en euskara.

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Green Lions / Britdoc Foundation

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
David Bond

| Apirila Abril | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 14 | 19:00 | OÑATI | ZINEMA | Oñatiko Natur Eskola |




## David Attenborough: Una Vida en Nuestro Planeta

*(75 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania, azpititulurik gabe.
Castellano, sin subtítulos.

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Altitude Film Entertainment / Silverback Films / World Wildlife Fund

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Alastair Fothergill, Jonathan Hughes, Keith Scholey

## BIZITZA OSOA NATURAN / TODA UNA VIDA EN LA NATURALEZA

**93 urterekin, David Attenborough planetako kontinente guztietara joan da, ehunka leku esploratu ditu eta mundu biziduna bere osotasunean dokumentatu du. Orain, lehen aldiz, naturalista gisa izandako esperientzia garrantzitsuenei buruz hausnartzen du.**

A sus 93 años, David Attenborough ha visitado todos los continentes del planeta, explorando cientos de lugares, documentando el mundo viviente en todo su esplendor. Ahora, por primera vez, reflexiona sobre las experiencias más relevantes de su vida como naturalista.

| Apirila Abril | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 22 | 19:00 | EIBAR | COLISEO | **Joaquín Araújo** *Naturzalea / Naturalista* **Miguel Delibes de Castro** *Biologoa, CSICeko ikerketako irakaslea / Biólogo, profesor de investigación del CSIC* |



# Naturaldia Zinema

GIPUZKOA **INGURUMENA**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Diputación Foral de Gipuzkoa

**ETORKIZUNA ORAIN**
Es futuro

**EGOITZA LAGUNTZAILEAK**
SEDES COLABORADORAS

azpeitikoudala denon artean

TOLOSA

ERRENTERIAKO UDALA

EIBARKO UDALA

Geoparkea
Euskal Kostaldea - Costa Vasca

Oñatiko NaturEskola

DONOSTIA SAN SEBASTIAN AQVARIVM

**LAGUNTZAILEAK**
COLABORADORES

Trienekens

GIPUZKOA **KULTURA**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Diputación Foral de Gipuzkoa

**ETORKIZUNA ORAIN**
Es futuro